

Jon Ander Lerin, kirolaria:

# “Nire lehen ‘Hiru Handiak’ proba 18 ordutan bukatu nahiko nuke”

Gorputz-hezkuntzako irakaslea den arren, euskara eskolak ematen dihardu Tuteran. Saltsa guztietako perrexila dela aitortzen du baina azkenaldian, kirolean ipini du arreta Jon Anderrek. Otsailaren 8an egindako duatloian, lehen ermuarra izan zen, 1h14:15 denborarekin. Gainera, mendi lasterkak eta kilometro bertikalak egiten ditu, Hiru Handiak proban parte hartzeko prestatzen den bitartean. Atletismoko entrenatzaile titulua ere badu.

- *Sailkapen orokorrean 68., baina gainontzeko ermuarren aurretik sailkatu zinen...*

Baina esan beharra daukat, Ermuko onenek ez zutela parte hartu.

- *Zure lehen aldia izan da Ermuko duatloian?*

Bai, eta oso gogorra egin zait. Erritmo onean hasi nintzen arren, aurreko egunetako nekea igarri nuen. Egunean bertan, gainera, goizeko 7:00etan hasten gara Oso-otsekoak lanean, eta horrek ere ondorioak ditu.

- *Zein da zatirik gogorrena?*

Mallabira justutxo heldu nintzen, San Pedro igo... Eskertzekoa da baina, zenbat jendeak animatu ninduen.

- *Eguraldiak ere eragina izan zuen?*

Bai, nik eguzkiarekin askoz hobeto funtzionatzen dut. Gainera, hotz zegoen eta ez nintzen behar bezala jantzi; bukatutakoan etxera joan behar izan nuen, gaixorik.

- *Bizikleta ala korrika egitea nahiago?*

Bizikletarekin gehiago disfrutatzen da, deskantsatzeko aukerak dituzu. Korrika egitean, arnasestuka noa. Mendi disfrutatzen dut gehiago, Urkora igotzen, adibidez.

- *Zein da zure marka?*

29:05, anbulatoriotik Urko puntara. Jendeak esaten dit horrela ezin dudala disfrutatu, baina ez da egia. Berdinberdin disfrutatzen da. Kirolariak garen heinean, erronka batzuk ipintzen ditugu. Topera heldu, bihotza leher-tzeaz eta arnasa ezin harturik, baina pozik.

- *Asko entrenatzen duzu?*

Egunero gimnasia noa 2 orduz eta asteburuetan atsedenaldiran bat egiten



dut. Hala ere, entrenamendua ez dator bat lortzen ditudan emaitzekin.

- *Zer dela eta?*

Oso urduria naizelako. Lasterketetan, eta aurreko egunetan, oso urduri ipintzen naiz eta tripako mina izaten dut. Urduritasunak lehiakortasunari eusten laguntzen du, egia da, baina niri ez dit onik egiten.

- *Zertan ibiliko zara datozen hilabeteotan?*

Hiru kilometro bertikal egiteko asmoa dut (Xoxote, Txindoki eta Beriain), polito ibiltzen naiz. Horrek, gainera, ekainean egingo den Hiru Handiak lasterketa prestatzeko balioko dit. Bestalde, epe luzera, triatloietan has-teko asmoa dut.

- *Zer espero duzu Hiru Handiak proban?*

Lehentasuna bukatzea da, baina gustatuko litzaidake 18 ordutan egitea. Uste dut egingarria dela.

- *Zer da kirola zuretzat?*

Lehen mailan familia eta lagunak ditut; bigarrenean, kirola. Estresa kentzeko modua da, berriztu egiten zaitu.

- *Aspaldian zaude Ermutik kanpo?*

Bai, 5 urte daramatzat Nafarroan, tartean Betelun, Zarrakastelu eta Iruñean; orain Tuteran nago. Eta beti ibili izan naiz euskara irakasle.

- *Zein beste esparrutan aritu zara?*

Atletismo eskolak eman izan dizkiet umeei bai hemen zein Nafarroan ere, baina ez nuen denborarik eta utzi behar izan nuen. Bestalde, Iruñeko Mintzakide egitasmoko koordinatzailea izan naiz, euskararen alde egiteko beti nagoelako prest. Orain, Erriberan ‘mintzalagun’ talde-txoa sortzekotan gabilta.

- *Beraz, ez duzu hona bueltatzeko asmorik?*

Ez, bertan geratuko naiz.

Dorleta Vidal





**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

**ONAINDIA**  
**HARATEGIA**

Etxean egindako  
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41